

Curriculumak berdiseinatu eta berrinterpretatu egiten dira teknologia digitalek eskaintzen dituzten aukera pedagogikoak islatzeko

Behin eta berriz berdiseinatzen (edo, kasu bakoitzaren arabera, berrinterpretatzen) dira curriculumetako edukia, eredu pedagogikoa eta ikasleak inplikatzeko planak. Ikasleak curriculumak diseinatzen lagunduz inplikatu daitezke, eta biziki inplikatzeko dira bere burua gidatzen duten ikasle moduan.

Irakasgaietan oinarritutako ikaskuntza beste era batera antolatzen da eredu integratuagoak sortzeko

Ikaskuntza-erakundeak ezarrita ditu irakasgaietan oinarritutako ikaskuntza berrasmatzeko eta berdiseinatzeko prozesuak **eredu integratuagoak ontzat emateko** (diziplinartekoak eta diziplinaz gaindikoak) eta arreta ikaslearengan jarriko duten ikaskuntza eta ebaluazio koherenteak eskaintzeko. Adierazitakoaren moduko eredu bat bermatzean, ikaskuntza digitalerako teknologiek erraztu egiten dute eduki multimodal aberatseko gaiak hautatu, sortu eta antolatzea, eta horrek ideia konplexuak hainbat perspektibatatik aztertze eta ulertze aukera emango die ikasleei.

Ikasteko lekua eta ordutegiak birprogramatzen dira

Ordutegi malguak eta neurria egiten dira ikasleek eta pertsonalak ikaskuntza eraginkorrean inplikatzeko aukera gehiago izan ditzaten, barne hartuta banakako eta taldeko jarduerak kanpusean bertan eta kanpusetik kanpora (edo ikastetxean bertan eta ikastetxetik kanpora). Ikaskuntza digitalerako teknologiek kokapen-aukera berriak eta ordutegien kudeaketa aurreratua eskaintzen dute ikaskuntza-prozesuan.

Online hornidura errealtate bat da

Erakundeak konpromisoa hartuta du **ikastaro edo programa osoak erabat online** garatu eta hornitzeko, hain zuzen ere, lehen ordezkartzarik ez zuten ikasle-talde berriei **sarbidea emateko** eta, aldi berean, **lehendik zeuden ikasle-taldeei malgutasun handiagoa eskaintzeko**.

Egiazko inguruneetako ikaskuntza sustatzen da

Curriculumaren eta programaren diseinu berritzaileak kontuan du ikaskuntza **digitalerako teknologiek izan dezaketen efektu biderkatzailea pertsonala eta ikasleak egiazko inguruneetan inplikatzeko**, horietan erabat garatu eta aplikatu ahal izan ditzaten alde aurreko ezagutzak, ikerketak eta pentsaera independentearen trebetasunak. Hala egitean, irakasgaiei buruzko ezagutza tradizionalaz haratago iristen diren desafioei egin ahal izango diete aurre eta, aldi berean, zeharkako trebetasunak, funtsezko gaitasunak eta, bereziki, gaitasun digitala frogatzeko eskatuko zaie.

Ikaskuntza digitala hornitzen dela curriculum-arlo guztietan da agerikoa

Erakundeetan aldi behin berrikusten dira curriculumak, **ikaskuntza digitalerako teknologiak** ikaskuntzari **eta irakaskuntzari laguntzeko** integratu eta modu eraginkorrean erabiltzeko.

Ikasleen gaitasun digitala curriculum osoan garatzen da

Ikasleen gaitasun digitala ohituraz bultzatzen, garatzen eta ebaluatzen da agertoki guztietan eta **curriculum osoan zehar**.